



## **GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILERA**

**Tokia eta eguna:** Leioan, 2011ko apirilaren 11n

**Hasiera-ordua:** 12:00etan

**Amaiera-ordua:** 13:30ean

### **Presidentea:**

Amaia Maseda (Unibertsitate Hedakuntza eta Gizarte Erantzukizuneko errektoreordea)

### **Idazkaria:**

Estibaliz Martínez andrea (Garapenerako Lankidetzako Bulegoko teknikaria)

### **Bertaratu direnak:**

#### **Kontseilukideak**

Iratxe Amiano andrea

Luis Guridi jauna

Imanol Zubero jauna

Joseba Sainz de Murrieta Mangado jauna

Anaut Patterson Mendiola jauna

María José Maeztu andrea

Maria José Mijangos andrea

Joseba Zuazo Olozaga jauna

#### **Kontseilukide ez diren pertsonak:**

Aitxiber Zallo Kamara andrea

#### **Ez bertaratuak:**

Eneko Calle jauna

Koldo Unceta Satrústegi jauna

Jose Aurelio Pérez Arias jauna

### **Gai-zerrenda:**

1. Aurreko aktak onestea
2. Garapenerako Unibertsitateen Lankidetzako Jardunaldia ebaluatzea eta jardunaldiari jarraipena emateko proposamenak.
3. Galderak eta eskaerak.



## **Akta**

Amaia Masedak (Unibertsitate Hedakuntza eta Gizarte Erantzukizuneko errektoreordea) hasiera eman dio bilerari. Bileraren hasieran, Iratxe Amiano andreak bilerara etortzea eskertu die bertaratuei, eta gai-zerrenda aurkeztu du.

### ***Lehen aztergaia: Aurreko aktak onestea***

Lankidetzako Kontseiluak 2011ko urtarrilaren 10ean egin zuen bileraren akta onetsi dute.

### ***Bigarren aztergaia: Garapenerako Unibertsitate Lankidetzak Jardunaldia ebaluatzea eta jardunaldiari jarraipena emateko proposamenak.***

Honako hau erabaki da puntu horren inguruan:

- Jardunaldiari buruzko balioespina oso ona izan da, bai bertaratuen kopuruari dagokionez, bai jardunaldiaren garapenari dagokionez.
- Parte-hartzaileen harremanetarako datuak banaketa-zerrenda batean jasoko dira, haiekin komunikatzeko erraztasuna ziurtatzeko.
- 0 Diagnostikoari dagokionez, hauxe erabaki da:
  - Jaso diren azken ekarpenak sartu ondoren, dokumentua euskaratzea.
  - Dokumentua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea Lankidetzak Kontseiluaren webgunean.
  - 0 Diagnostikoari jarraipena ematea, unibertsitate-komunitateak emandako datu berriak sartuz. Horren xedea Diagnostikoari izaera dinamiko eta eguneratua ematea da.
- Tailerrei edo lan-taldeei dagokienez, honako talde hauek eratzea eta honako koordinatzaile hauek aukeratzea erabaki da:
  1. tailerra: Erakundeen konpromisoa eta barneko kudeaketa  
Koordinatzailea: Luis Guridi
  2. tailerra: Irakaskuntza eta Ikerkuntza  
Koordinatzailea: Imanol Zubero
  3. tailerra: Boluntariora, zabalkuntza, sentsibilizazioa eta presentzia jendeartean.  
Koordinatzailea: Eneko Calle
  4. tailerra: Teknologia-tailerra.  
Koordinatzailea (hasierako sustatzailea): Maria José Mijangos  
Beste kide batzuk: Anaut Patterson
- Iratxe Amiano andreak, Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, talde guztietan parte hartuko du.
- Horrez gain, ikasleen kontseiluari eta UPV/EHUrekin elkarlanean ari diren GGKE batzuei taldeekin bat egiteko gonbita egitea erabaki da.



- Koordinatzaileak harremanetan jarriko dira taldeetako kideekin lehen lan-saioa hitzartzeko asmoz, eta Aste Santuko oporren ostean (maiatzaren 2tik 6ra) izan beharko du.
- Lehen saio horretan taldea osatzen duten kideak aurkeztuko dira, eta haietako bakoitzak adieraziko du taldean egoteko motibazioa eta itzaropenak.

***Bosgarren aztergaia: Galderak eta eskaerak.***

- Estíbaliz Martínez andreak Lankidetzaren Kontseiluaren webgunea aurkeztu du. Kontseiluak ontzat eman du, aldaketa hauek kontuan hartuta: Hasierako orrian “Ekitaldiak” (*eventos*) epigrafea aldatu, eta “Deialdiak” (*convocatorias*) jartzea.
- Garapenerako Lankidetzaren arloko Unibertsitateen Jokabidearen Kodearen aleak inprimatu eta banatzeko eskaera egin aurretik, Kodeari hitzaurrea gehitzea erabaki da.
- Garapenerako arloko Plan Estrategikoari dagokionez, ildo nagusiak 2011ko uda baino lehen aurreikustea erabaki da.
- Hurrengo bilera maiatzaren 9an (astelehena), 12:15ean, egitea onartu da.

**Beste aztergairik ez dagoenez, bilera amaitu da.**